EUSKALEŘIKO BEŘIAK

GIPUZKOA

GOTZAI JAUNAREN ESKU ZABALA

Oraindik orain amabi gizon galdu [illegible] gertaera beltza gogoan ez dunik [illegible] izan iñor Gipuzkoa'n. Gotzai [illegible]k ere jakin zun berri beltza ta [illegible] zitzaion bere biotza ta illen [illegible] otoitz egitea gutxi iruditu nun-[illegible] eta 3.000 laurleko biali dizkio Pasai San Pedro'ko bikario jaunari illen sendiai emateko.

Artzai ona degu euskaldunok Gazteiz'ko gotzai jauna.

SENDI ATSEKABETU BERAEN ALDEZ

Illaren 20'an eta Victoria Eugenia-antzokian gizonak galduta gelditu diran sendien alde erestaldi bat izango da. Eres-jotzalleak Figuerido jaunaren mendean ain yayo jotzen duten jendeak izango dira. Abeslari-taldea ere izango da: Aranburu'tar Gelasio, Pasai Antxo'ko apaiz jaunaren mendean abesten dun «Schola Chantorum» bikaña. Gauza egoki-ederra egingo dute noski ta jendea atsegiñez egongo da berai entzuten. Bilduko al da jendea an biltzen dana zer asko onerako dan jakinda. Bai bear beintzat. Atsekabetuai alegiñean lagundu egin bear zaie.

IZKILLUAK BAITU

Gallastegi jaunaren lantegian Guardia Civiletakoak izkillu-kaja bat billatu omen dute zenbaki ta ola-ikurrik gabe. Ixilka saltzeko asmotan eukiko zitun noski jabeak. Baitu egin dizkiote ta ori gutxi bailitza, 6.765 laurleko kendu gañera.

Porru ederrak atera ditu gizarajoak.

BERE BURUA IBAIRA

Gabeko amabitan bere burua Deba-ibaira bota omen zun astelenez 29 urteko Etxeberria'tar Leonardo'k. An gelditu omen zan itota gizarajoa. Ez jakin zerk artu-arazi dion asmo galgarria.

ZARAUTZ'KO AMABI ABERTZALE ESPETXERA

Jon dan ostiralean ez bat eta ez bi eta gabeko amabitan Zarautz'ko amabi gazte abertzale ekarri zituzten Donosti'ko espetxera. Amabi oietatik bi emakumeak ziran gañera. Jende guztia arrituta geratua zan ori jakin zunean. Zergatik egin ote du ori gobernadore junak? Baditeke berak jakitea; baita ez jakitea ere.

Erriko alkate batek bear dula ta ezetzka an ibilli dira zalapartan. Eta egun batean alkate izan nai zun jauna etxeratuko ba zan, Donosti'tik txinelak eraman da joan bear izan zula ta gertatu zaren errua abertzaleak dutela sinisteraziko zioten noski gobernadoreari.

Ori orrela gertatzea ez da batere arritzekoa. Auzi ori erabakitzeko zergatik ez aukeratu norkeririk ez duten gizon jator batzuk? Ori egin izan balitz, etzan gertatudanik gertatuko.

Jendeak zeñenu begi txarrez ikusi dun an egin dana gauza batek garbiro esaten du. Abertzaleak espetxera ekarri ta urrengo egunean Zarautz'ko denda guztiak asarrea erakustearren itxita egon ziran eta lantegi guztiak ere oporrean.

Zarautz'en zalapartarik izan ba da, abertzaleak ainbestexe erru zuten zarrontzaleak ere. Orregatik ez da bidezkoa izan, abertzaleak bakarrik era orretan erabiltzea. Ori ez da zuzen jokatzea. Abertzaleak ez diranak ere, aitortu dute ori.

Ona espetxean egon diranen izenzerrenda: Alberdi'tar Andoni eta Peli, anayak; Beristain'dar Bitor; Zubinaldar Perdinanda; Aramendi'tar Joseba; Uranga'tar Sebasten; Arregi'tar Bendur eta Domeka, anayak; Abruza'tar anayak eta Garate'tar Miren eta Illarramendi'tar Kostandiñe, andereñoak.

Azke utzi dituzte ta joan dira beren etxeetara. Gañera milla bana laurlekoko multa bota ote zien ere esan zuten.

ASPALDIKO ARTOLA'REN MULTA AYEK BARKATU

Aspaldiko Artola zanak abertzaleai ezarri zizkien multak barkatu zituztela ta etzituztela ibilli ziran lenago ere. Ikusten danez barkatu gabeak ziran oraindik. Muga'k orain eman omen du abertzale-jendearentzat barkapena. Garizuman gaude ta barkapen-garaya izan garai au...

Oraindañokoan lan-saritik eta ordaintzen aritu diran abertzale gizarajoak aurrerantzean lan-saria oxooxorik jasoko dute. Eta oraindañokoan beren aurka egin dan bidegabekeria ez al du iñork ordaindu bear?

Artola'k dauka; Artola dauka... abestu bear. Edo bestela: Arrapatzen ba zaitu... arrapatzen ba zaitu...

Soñeko ebakitze irakastola

Amabost egunian erakusten du IZA'tar EUJENIAK mota guzietako jantziak txurik naiz kolorezkoak gizon, emakume eta aurrenak ebakitzen, «Sagardoai»'eraz Maistrak euskeraz itz egiten du San Martin kalea, 29. 4'gn. bizitza ezkerretara.—DONOSTIA

ALBIZTUR

LOTSAGARRIA DA

Erri ontatik Tolosa'ra dagon bitzabalaren eskuitik eta tren-zubia baño lentxeago arkitzen dan errota, ardoa ere saltzen duten batean, billera txarra eta dantza-lotu nazkagarria ere, egiten da noski igande eta jaietan.

Gure Erretore jaunak oso egoki itzegiten zigun aurreko igande batean gai orretzaz. Errota ortako billera txaar oyetara ez gaitezela joan, benetan esanaz alegia; eta erri ontatik, ez det uste iñor joaten danik. Ez al-da joango baldin-bait ere!

Dantza eta billera txaar oyek antolatu, artu, egin eta oyetara joaten beren seme-alabai utzi oi dioten guraso zabar guztiak, garaiz damutu eta zuzentzen ez badira; ¡bai kontu estua eman bearko diotela Jaungoiko zuzenari, txit sarri iritxiko zayoten egunen batean!

Lotsagarria omen-da
or dagon billera,
ortikan bide gutxi
noski gaiztokira.
Seme-alabai zintzo,
gurasoak begira,
t'ez utzi joaten iñoiz
galtzeko tokira.

Gařizuma garaian,
naiz izan garbiak,
al-degun gutxiena
dantza ta jolasak.
Oyek ba-dira berriz
zikin da traketsak.
ezin egin ba iñoiz
mutil da neskatxak.

ARGI DONEA

Zenbat eta geyago ikusi eta irakurtzen detan eliz liburu bikaiñ ori, orduan da eder eta zoragarriago arkitzen det.

Eliz, etxe eta nora nairako ere, lagun egoki eta jatorra bai zaigula liburu mamitsu orixe!

ARGI DONEA artzen duena
jakintsu egin liteke,
guk bear degun jakindurla
ortxen daukagu ta merke.
Azkarrak eta ¡motel geranok!
or ikasi genezake,
arro-gaiztoak ¡jakintsu-apal!
orrekin egin gindezke.

LUISTAR

Zuk nai dituzun liburu oyek ez dituzu noski iñon arkituko.—T.

Dr. Olaizola

Guzitariko sendakintza (Cirujía general), Rayos X, Rayos Ultravioleta eta Diaterma
Urrutizkiña 90. egunero 11'etatik 1'era eta 5'etaitk 6'etara
ZUMAYAN

ALEGI

Gaur arratsaldeko 6'tan Batzokiko areto nagusian, Emakume abertzaleak Amundarain'tar Antonio jaun ja kintsu ta apaiz argiak egindako «Lore bat loitan» izeneko antzerki ederra aurkeztuko dute. Antzerki bikain ta onbidetsu au ikusteko zaletasun aundia dago emen, eta beti bezela sarrerako txartelak Batzokiko atetan dagoen leyatillan salduko dira.

—Donostian gaur Euzko Nekazariak egingo duten Batzarrera emengo elkarteko Lendakaria ta Idazkaria joango dira, ta bertan artzen diran erabaki ta gañerako nekazarien aldezko asmoak urrengo egun batean agertuko dizkie ordezkari oyek emengo bazkideari.

MOXKOLLEGI

Dr. Arrieta

Sudur, eztarri ta belarrietako gaitz sendagillea
Prin kalea, 19, 4.ª
DONOSTIA

ALTZA

JAYOTZA

Imazt'ar Gregorio ta Arrieta'tar Zezilia'k semetxo eder bat izan dute. Zorionak.

OPERAZIOA EGINDA

Arkitzen da Orbegozo'tar Ramona. Lenbailen bizkortu ta osasun onian jartzia opa diogu.

«TXANTXANGORRIA» IDAZLEARI

Milla esker «Txantxangorria» ortik enbidoka asi zeralako ta poza aundiya artu nuen zure lerrotxo politak irakurrita, bada zu ortik ta gu emendik euskeraren alde lan egin dezagun gogotik.

URRETXINDORRA

URDAÑA
(ESTOMAGOA)
bizitzeak ematen digun alaitasunaren ituřia da.

Zaindu zazu ondo
jan egokiak emanaz eta
Dr. Vicente'ren
Digestonikotik
kutxarekada batzuek artuaz.
Sendakaitegietan salgai.

AMASA

EUSKO ANTZERKIYA

Aurreko igandian antzeztu zizkiguten «Abaroa ta Babesa» ta «Gibelaundi» alkar izketa. Lengo igandian ezin antzeztu izan zuten Eusko Langilletako aretoa oraindik eratu gabe zegoelako; orregatik izan zan atzerapen ori. Guziak oso ederki egondu ziran ta txalo ugariak irabazi zituzten.

Datorren iganderako beste bi antzerki politak gertutzen ari dira: «Aitona ta Billoba» ta bestia «Mai Piliparen ezkontza». Orrela atsaldea nun igaro izango degu neguko eguraldi oyekin kanpoan ezta giro-ta.

GAZTEIZ'ERA

Erri onetan ere zaletasun aundia da go batez ere gaztediaren artian Gazteiz'en aurten egingo dan Aberri Egunerako, bada ogei ta amarrek beren izenak eman dituzte ta beste askori ere aitzen niyen; beraz ezda Amasa'tik gutxiena joango.

MUS TXAPELKETA

Igaro zan igandian erriko Batzokian mus txapelketari asiera eman zitzayon. Garailleak arronka gelditu ziran ta galtzalleak berriz buruba makurturik.

Aia ziyoten garailleak: ikastian etorri, bitartian ez eta galtzalleak, berriz, igandian ikusiko diagu nun gelditzen diran arronka oyek.

AKULEI

Gaxo jarraitzen du aberkide jatorra dan Sasiainbarrena'tar Agustin'ek Lenbailen osatzea opa diot.

KOLDOBIKATARRAK, ENTZUN

Koldobikatarra izan nai dezun gaztea dei dagizut zuri ta entzun zaidazu.

Lenagoko Koldobikatarren batasuna galdu bada ere, orain berriro batu egin bear degu guziok, lengo batasunari eldu bear giñion nor izan bagiñan, bañan gure batasunagatik arren beste lan egin zun Leandro Arbide, erretore jauna (G. B.) Jainkoak Bereganatu zuan egunetik gure batasuna galtzen asi zan. Jaun orrek sua ederki piztua utzi zuan bañan geroztik iñork suari aize eman etziolako itzali egin zan.

Bañan berriro piztu egin bear degu gazte guztiok Koldobikatar egiñik. Gonzaga'tar Koldobika deunaren ikurriña guzion artean gorantz altxa dezagun, eta beragatik dei dagizuet inguru eta urrutieneko gazte guzioi igandean. Epaillaren 18'an egingo dan batzarrera biltzeko.

Batzarra egingo da Josuren biyotzaren elizan, 8'etako meza ondoren. Gazte maitea, zerana zerala esnatu ta ekin gogor. ¡Gazteak! Gonzaga'tar Koldobika deunaren ikurrinpean bildurik guziok, arren, gogoz gure anaidia jaso dezagun...

Jaunak argi daigula ta zeruko Amak lagundu gaitzala.

¡Gora Koldobika'tarren anaidia.

ALAXEN

ANOETA

—Goikoetxe'ko ardandegian ta Arrolarte baserrian izugarrizko sagardo bikañak jarri dituzte saltzen, eta egun oetan, batez ere igandetan, sagardo zaleak erruz bildu dira upelategi oyetako mama gozua eratera.

—Arretxe baserrian il onen lenbiziko egunean aur zoragarri bat jayo zan eta batayoan Jose Anjel izena ipiñi diote. Zorionak.

—Sei iilabete zituen, Josebe Julene izeneko aurra igo zitzayoten joan dan astean zerura Urrutine baserrikoai.

Aurtxoen guraso Jose Iñasio ta Gertrudis'ek artu bezate nere samintasunezko agurra.

—Eliz nagusian S. Jose'ren bederatziurrena asi da, ta bukaerako egunean egingo dan Eliz-jayean Aita Migel Altzolatarrak itzaldia egingo digu.

ERNIOPE

ARRONA

ASTEKO BERRIAK

Larrazabal-goikoan izan duten semetxua, ostegunian ugutzatu zuten, Lazkano'tar Joxe Migel eta Olaizola'tar Ana Joxepa jasotzalliak zirala.

—Igande arratsaldeko iruretan eliza bete-betia zegoala, mixio santuari asiera eman zitzayon. Bi egun abetan egoaldi ebitsuak izan arren jendia sendo dabil biretan goizeko ta arratsaldeko itzaldi bikañak entzuten.

Gaur bukaera emango zayo. Jaunak ixuri bitza gure erri onetara bere esker berezienak.

ZIOLAR

ATAUN

ARGIA'ren bitartez eskerrak Orendain'go endore Joseba eta bere lagun Eugenio'ri. Oraindik gazteak dira baña bai abertzale bulartsuak. ARGIA'ren irakurleak dira biyak. Esan bezela etorri Gergori deunaren egunean, neskatx ederrak badituk emen eta ikusteko era ederra orduan dek.

«ARRAPAZAK» ETA «BILINTXI BALANTXA»-RI

Opor aldi bat idatzi gabe
egin dezuten mediyo
irakurle bat egun ayetan
nigana zegon seriyo
«Arrapazak»-ek bere errua
besteri botatzen diyo
bapo litzake berak esanda
bestek egingo baliyo.

—o—

Batak lan asko daukala dio
bestia berriz aparte
eragozpenak izan oi dira
ez gera arritzen bate
Deun Gergorio'n pesta jatorrak
jartzen zaleak zerate
bazkaldutzera etorriko naiz
konbidatzen banazute.

—o—

Mendi oyetan elurra eta
egualdi otzarengaitik
barrendik ongi baldin bagaude
batere ezdigu inportik
egun ortako bazkari eta
litro bat ardoren gaitik
plaza berrira dantzara juanda
ez det ausiko alpargatik.

AZPEITI

TAMALGARRIA DA BENE-BENETAN

Baño aitamak errian jaio, errian bizi ta orain, ainbeste maite zuten erria utzita atzerrira jun bearra... Orixe bai izango dutela gauza mingarria. Gauza mingarria, ezin ukatu ta min ori aldi luzean sendatuko ez dana...

Ill onen 15'an aterako da bere emazte on ta semetxo txiki maite danakin aita on bat emazte ta semetxuentzako eguneroko ogi billa errian ezin irabazi dualako. Ez dijua urrutira Euskal Errian gelditzen da. Beretzako poz aundia da au bada abertzale purrukatuenetakoa da. Euskal idazle azkarrak gañera A. ta M.'rekin izenpetu oi zituan idaz-lanak. Izki aben bidez nai diot egin nere agurrik maitekorrena.

Agur ba lagun ona, agur Jaunak lagun.

ANTZERKI EDER BAT

Aurreko igande arratsaldeko lauterditan Erruki Etxean bertako ikasle neskatxa, zar da gazteak Erruki etxearen premiarako antzerki bat antzeztu zuten. Antzezlari danak zein baño zein obeto bakoitza bere egintzetan. Ikusten, asko.

Asmaketari erantzuteko ořitxoa

1'gn. galdeera ... ...
... ...
2'gn. galdeera ... ...
... ...
3'gn. galdeera ... ...
... ...
4'gn. galdeera ... ...
... ...
5'gn. galdeera ... ...
... ...
... ... 'k bialtzen dizkitzute erantzun auek.
Zuzenbidea ... ...
Erria ... ...